

UDALAK EUSKERAZ...

ZUK ZERGAITIK EZ?

Kanpaina-2015

2012ko eta 2013koaren implementazioa



KANPAINAREN JATORRIA

Pentsaturik herritarren eta Udalaren arteko **harreman idatzian** desoreka nabarmena zegoela, astindua emateko ordua dela otu zitzaigun. Horretarako, “UDALAK EUSKERAZ..., ETA ZUR ZERGAITIK EZ?” kanpaina garatu genuen 2012an.

Lelo berberari eutsiz, 2013an ekin zitzaion helburu berdinekin eta gehitu egin genion beste administrazioekiko harremanen hizkuntza tratamendua jorratzea.

Orain, 2015ean, horri jarraipena eman nahi diogu eta hasi ginenetik honako bilakaera osatu asmoz, datu-bilketa berria egin da Erregistroko sarrera eta irteera agirietan.

DATU-BILKETAK – BILAKAERA

Sarrerak/irteerak Erregistroan (bilakaera 2012-2015)

	Euskaraz			Elebitan			Gaztelaniaz		
	2012	2013	2015	2012	2013	2015	2012	2013	2015
Erregistroko sarrerak %	17,88	21,04	19,93	16,77	22,07	23,04	65,35	56,26	57,03
Erregistroko irteerak %	19,71	16,60	23,64	78,84	81,00	75,79	1,45	2,40	0,54

Datuen irakurketa (datu orokorren bilakaera):

- Euskarazko idatzizko sarreretan gora 2 puntu aztertutako urteetan (gora-beherak urte batetik bestera); eleberazkoak ia 7 puntu gora egin du, etenik barik; gaztelaniazkoak beherantz nabarmen 8 puntu.
- Udalak emandako irteerei dagokienean, euskara hutsezkoak %23,64 dira, goranzko bilakaera izanik; eleberazkoa da nagusi nabarmen, %75,79, nahiz eta behera egin duen; gaztelaniazkoa ia testimoniala da gaur egun.



2015eko datu bilketa

Aurreko bi kanpainetan datu orokorrak besterik ez ziren jaso, baina oraingoan, desberdinu egin da datu bilketan herritarrengandik eta administrazioetatik datozen agiriak edo eurei doazkienak, bai sarreretan eta bai irteeretan, kasu bakoitzeko balorazioari inplementazio berezia dagokiolako. Datu bilketa 2015eko maiatzean burutu zen.

Lagina:

Sarrerak			Irteerak		
Guztira	Herritarrenak	Beste erak.	Guztira	Herritarrei	Beste erak.-ei
768	550 (%71,61)	218 (%28,39)	537	337 (%62,75)	200 (%37,24)

	Euskaraz			Elebitan			Gaztelaniaz		
	Orok.	Herrit.	Beste erak.	Orok.	Herrit.	Beste erak.	Orok.	Herrit.	Beste erak.
Erregistroko sarrerak	%19,93 153	%24,72 136	%7,79 17	%23,04 177	%4,36 24	%72,20 153	%57,03 438	%70,90 390	%20,01 48
Erregistroko irteerak	%23,64 127	%10,08 34	%46,5 93	%75,79 407	%89,31 301	%53,00 106	%0,54 3	%0,59 2	%0,5 1

Datuen irakurketa (2015):

- Sarreretan herritarrenak (esparru pribatua) dira nagusi alde handiarekin (550). Heren bat bakarrik beste erakunde publikoetatik datorrena (218).
- Irteeretako kopuruak orekatuagoak dira, nahiz eta aldea egon herritarrei (337) eta beste administrazioei (200) bidalitakoen artean.
- Irteeretan euskarazko erabilera altuagoa da sarreretan baino, 4 puntu, eta nagusi dira beste administrazioetara doazen irteerak (bidalitako 200etik, 93 izan dira euskarazkoak).
- Sarreretan, herritarren jokabidea erdararen aldekoa da (%70,90), nahiz eta herritarren sarreretatik laurden bat (%24,72) izan euskarazkoa eta gora egin duen 2012tik hona.

- Sarreretan, beste administrazioen jokabidea elebitan funtzionatzea da (euren sarreretako %72,20 elebitan), baina euskarazko sarrerak oso gutxi dira (%7,79).
- Irteeretako kopuruetan islatzen da Udalak erabakita daukan hizkuntza irizpidea noraino betetzen den. Portzentajeen arabera (beste administrazioetara bidalitako euskarazkoa %46,5 eta herritarrei bidalitakoa %10,08) esan dezakegu hizkuntza irizpidearen betetze-maila %50era ere ez dela iristen.

KANPAINA INPLEMENTATZEKO BEHARRIZANA

Kanpainari jarraipena eman behar diogu 2015ean eta inplementazio horretarako oinarriak finkatzerakoan, honako irizpideei jarraitzea proposatzen dugu:

- Modu positiboan aurkeztu kanpaina. Aurrera goaz, hobetu dugu,...
- Datuen bilakaera orokorrak ematen dituen datu positiboak nabarmendu, batik bat Erregistroko sarrereren datuak (euskarazko sarrerak 3 puntu gora lau urteko epean).
- 2012ko eta 2013ko zabalkunde berea egin eta eragile zerrenda berdinari bidali beste gutun bat eta material berria, bilakaera positiboan izan duten eraginagatik eskerrak emanda.
- Kontuan harturik Gernika-Lumoko Udalak erabakita daukana beste administrazioekiko harremanetan, hau da, euskara hutsezko harremanak izatea, eta erregistroko sarreretan beste administrazioetatik dagoen jokabidea (elebitan aurkeztea –euren sarreretatik %72,20- eta euskara hutsez %7,79 besterik ez), areagotu egin behar zaie eskaera beste administrazioei euskara hutsez bidal ditzaten agiriak (batik bat ofizioak, gutunak, zirkularrak,...).



- Herritarrak izan arren euskararen alde gehien jotzen dutenak (euren eskabideetatik %24,72), eurak dira erdarara jotzen dutenak gehien eta gutxien elebikora. Kontuan harturik herritarrek duten hizkuntza ezagutza eta kale erabilera, areagotu egin behar da mezua euskara hutsezkoaren alde herri mailan.
- Azkenik, Gernika-Lumoko Udalak berak ere bere buruari emandako arauak bete nahi baditu, ahalegina egin beharko du beste administrazioetara bidalitako agirietan kontu gehiago izateko; batik bat ofizio arruntetan nabarmendu da jokabide hori, euskara hutsean bidali beharrean elebitan bidaltzen direlako asko eta asko.

KANPAINAREN PLANTEAMENDUA

1. Nori zuzendua

1.1. Udalerriko herritar guztiei eta erakundeei (publikoak zein pribatuak).

2. Helburu orokorrak

2.1. Ahozko eta, batik bat, idatzizko euskararen erabilera areagotzea herritarrek eta erakundeek udalarekin dituzten harremanetan.

2.2. Euskaraz funtzionatzeko, Udalak dituen baliabideez herritarrek jabetzea.

2.3. Udal erakundeak euskararekiko duen konpromisoa berrestea.

3. Zeharbideko helburuak

3.1. Herritarrei laguntzea, eskabideak euskaraz egin ditzaten.

3.2. Itzulpenak egiteko Udal baliabideak herritarren eskura jartzea, euskararen erabilpenerako eroso eta erraz molda daitezen.

4. Kanpainarako lelo nagusia eta edukia

4.1. Lelo nagusia: “Gernika-Lumoko Udalak euskeraz eta....., ZUK ZERGAITIK EZ?.....”

4.2. Leloa baliatuz, hausnarketarako ziria sartu gura dugu eta euskaldunen jarrera astintzeko mezuak eta galderak planteatu.

4.3. Gernika-Lumoko euskaldungoaren portzentajeak eta udalarekiko harremanetan erabilpen portzentajeak erabilia, egoeraren berri eman.

4.4. Lau urteko bilakaera positiboa nabarmendu eta egin beharreko bidearen zati bat egin dugula adierazi.



5.- Noiz, zer, nori

Noiz	Zer	Nork nori
Azaroaren 13rako	Kanpainako euskarriak prestatu eta zabalkunderako gutunak eta kartazalak prestatu	Euskara Zerbitzuaren ardura
Azaroaren 18an	Kanpaina aurkezteko prentsaurrekoa	Euskara Zerbitzuak komunikabideei
Azaroaren 20tik aurrera	Bandoa atarietan eta bi orrikoa buzoneatu	Euskara Zerbitzuak herritar guztiei
Azaroaren 23an.	Gutuna bidali publizitate euskarriekin batera	Eusk. dinamizatzaileak hitzarguneko kideei (enpresak, saltokiak, erakunde publikoak, eragile nagusiak)
Azaroaren 23tik aurrera	Oizmendi telebistan bideoak eskaini	Oizmendiko arduraduna
2016ko maiatzean zehar datu bilketa	Kanpainaren balorazioa (adierazleak / bilakaera)	Euskara Zerbitzuaren hausnarketa

6.- Euskarriak/Zabalkundea

- 6.1. Kanpainaren aurkezpena komunikabideei: prentsaurrekoa.
- 6.2. Publizitate euskarria (5.000), Udalaren konpromisoa eta herritarrenganako /eragileenganako mezua azaltzeko. Postontzietan banatzekoa (**I. eranskina**)
- 6.3. Bandoa (400) atari guztietan (**II. eranskina**)
- 6.4. Gutuna (300): udalei, gainerako erakunde publikoei eta hitzarmengintza kanpainako kideei (enpresak, merkataritza, elkarteak). **III. eranskina.**



6.5. Oiz-mendi telebistarekin bideo laburrak prestatu eta eskaini publizitate tartetan (hiru mota: herritarrak euren artekoa, herritarrak eta udal langilea/k, zinegotzi baten aitortpena/azalpentsua,...). **IV. eranskina.**

7.- Giza-baliabideak/Laguntza

- 7.1. Euskara Zerbitzuko Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria eta Trebatzaile-itzultzailea (antolakuntza, koordinazioa eta hedabideekiko harremanak).
- 7.2. Hitzargune kanpainako euskara dinamizatzailea, hitzarmenkieei alde aurretiko informazioa emateko (gutuna eta bi orrikoa) eta Oiz-mendi telebistarekin harremanak lantzeko (bideo grabaketak).
- 7.3. Begirale bat banaketarako (bandoa eta publizitate euskarria).
- 7.4. Oiz-mendi telebistako arduraduna.

8.-Aurrekontua:

- Publizitate euskarriak (orria eta kartela: diseinua, inprimaketa,...).....	1.000 €	2.200 €
- Gutuna.....	Udala (bidalketa)	
- Bandoa.....	Udala	
- Banaketa / kartela jartzea.....	200 €	
- Bideo grabaketak/emanaldiak.....	1.000 €	

Gernika-Lumon, 2015eko azaroan.

Bittor Zarrabeitia
Hizk. Normalizaziorako Teknikaria

Karlos Gorrindo
Trebatzailea-Itzultzailea

